

OSTIRALA, 2025eko UZTAILAREN 18a

Madalenak 2025

ERRETERIA-ORERETA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Zoriontsu izateko 101 ordu

**Hilaren 21eko 19:00etatik 25eko 23:59ak
arte 101 orduko bidea egingo dute
Errenteria-Oreretako festek,
2025eko Madalen Jaiek • 19-32**



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Madalenak
gozatu!



lazko irudiaren antzekoak errepikatuko dira astelehenean. Liher Saiz

Hiru egun baino ez dira falta festaren ezteandarako

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

A tzerako kontu betean dira erreteriarak. Izan ere, hiru egun baino ez dira falta aurtengo omendua den Arantxa Otegi baserritarrak jaiei hasiera emango dien txupina piztu dezan. Azken urteetako bideari jarraituta, hiru txupinazo izango dira aukeran: txikiei begirako Mila Koloretako Txupinazo Txikia Koldo Mitxelena plazan,

18:00etan; gazteei begirako holi festa Gernika plazan, 19:00etan; eta txupinazo nagusia, jaien hasiera iragartzeko, Herriko Plazan 19:00etan ere bai. Urtero errepikatzen den arren, aurten ere berezia izango da suziriak eztanda egin eta plazan bildutako jendetza saltoka eta kantuan hasteko unea, EMKE Musika Bandaren *Zentenarioa*-ren erritmorra.

Horieta gerturatzetik ezin dute nentzat, edota txupinazoa bizi bai, baina lasaitasunetik egin nahi dute nentzat, pantaila erraldoia jarriko dute Zumardian, eta Herri Biziaren webgunearen bidez ere jarraitzea izango da zuzenean herribizia.erretereria.eus-en.

Aurretik bost egun, eta 130 ekin-tzatik gora: erakusketak, antzerkiak, kirol jarduerak, danborradak, dantza, lehiaketak, eta 70 musika emanaldi. Jai batzordeak mimoz, ardura ikaragarri, eta herritar denei erantzuteko landutako egitarau askotariko eta aberatsa. Tartean, astelehenean bertan eta jaietarako prestatzeko jai batzordeak antolatu duen herri bazkaria izango da Herriko Plazan bertan, baita *tardeoa* ere ondoren, DJ Ikerren eskutik.

Jai eredugarriak bermatu

Jai batzordea osatzen duten 33 eragileek zein udal ordezkariak deia egin diete herritarrei «herritik herriarentzat» jositako jaiak goza ditzaten. Aizpea Otaegi alkateak jaiak aniztasunean, berdintasunean eta inguruan gertatzen denari begira gozatzeko deia egin du aurten ere, «arduratsu jokatzu eta guztion artean jai eredugarriak izan

EL PIPORRO DE LA BIXI

GORA MADALENAK!

OSTATUA

Maria de Lezo Kalea, 2. Behea.
ERRETERIA.
Tel.: 943 68 15 50
676 16 40 04

• Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
• Banakako, bikote eta familia terapia

JAKOBE PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Erreteria
www.jakobepsikoterapia.com

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

daitezela bermatuz». Astelehena da festen lehen eguna, baina asteburuan, madalenen aurretik egitarau zabala ondu dute herriko hainbat eragilek. Bihar (larunbata) bertan, egun osoz Ereintza Dantza Taldeak antolatuta Erromeria Eguna izango da. Hogeita bosgarren ekitaldia izango du, eta berezia izatea nahi dute antolatzaileek. Horren harira, aurtan ohi baino gehiago luzatuko da euskal dantza festa, Gazte Egunarekin bat egingo duenez, elkar-

lanean aritu direlako Ereintza eta gazte asanblada. Hori horrela, 10:30ean hasiko da eta gauera arte luzatu. 20:30ean Gabezin erromeria izango da Agirre Lehendakariaren plazan. Tartean, plaza dantzak nonahi eta noiznahi.

Goizean hasita baserritarren azokak udako azoka berezia antolatu du, bestalde, 09:00etatik eguerdira arte, eta txosna guneeetan berriz, hainbat musika emanaldi izango dira, baita Landerbaso abesbatzaren madalenetako

kontzertua ere Madalenen ermitan 20:30ean hasita.

Jaien aurreko beste hitzordu berezia Madalen Jaien Atariko Txistulari Kontzertua da. Etzi (igandea) izango da, 20:00etan Zumardian. Aurtengo gonbidatuak Alaitz eta Maider izango dira.

Aitzakiarik ez da. Jaiak luzetik bizitzeko gonbidapena mahai gainean da bihartik hasi eta hurrengo ostiralera arte, aniztasuna eta begirunea erdi-erdian jarrita. ■

Albistur

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea · SUKALDEEN ESPOSIZIOA: Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es

Gora madalenak!!






ONGI PASA MADALENAK!

Errenteriako Euskal Eskola Publikoak



Bizarrain
ikastola

HH-LH 943-34 16 45 BHI 943-89 94 13



Cristobal Gamon HLHI

943-89 91 38



Cristobal Gamon BHI

943-89 94 41



KOLDO MITXELENA
Herri Ikastetxea

943-89 91 87



KOLDO MITXELENA BHI

943-89 95 00

Magikoak diren musika notak

Zentenarioa-rekin hasi eta bukatuko dira madalenak. Berezia da EMKEren Musika Bandak madalenekin estu lotuta doan melodiaren notak jotzen dituen una, plazan *txunpa txunpa txunpa* ari direnentzat, zein jotzen ari diren musikarientzat. Intza Barandiaran Aranalde eta Sarai De la Torre Fernandez musika bandako kideak dira, tronboia eta klarinetea jotzen dituzte hurrenez hurren, eta duela 23 urte heldu ziren musika bandara. Urtero errepikatzen den una izanik ere, *Zentenarioa* jotzeko momentuarekin pentsatu hutsarekin oilo-larrua jarri zaie biei, emozioarekin.

Musika bandarekin hasiko dira jaiak eta harekin bukatuko 'Zentenarioa' joz. Urtero errepikatzen bada ere, une berezia dela aitortu dute Intza Barandiaran eta Sarai De la Torre bandako musikariek.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

«Urtero lehenengo aldiz jotzen dugunean, txupinazoan, ikaragarria izaten da. Plazan ikusten duzun giroa, alaitasuna... Ez dut hitzik. Nik zortea dut eta nirekin batera jotzen izango ditut semea, aita, ahizpa eta lehengusua; lagunak ere bai. Ez daude haiek bandan, baina aukera dute herriko musikariek parte hartzeko». Ez da Barandiaran hunkitzen den une bakarra, *Zentenarioa* jo aurreko hamar minutuak ere bereziak dira harentzat, «eliza barrutik pasatzen garenean eta eskaileretara ateratzerakoan jende mordo eta giroa sumatzea izugarria da».

Gurasoei deitzen die telefonoz De la Torrek urtero, kanpoan izaten direlako, «pare bat minutu geratzen direnean deitzen ditut, telefonoa poltsikoan sartu, eta zuzenean entzuten dute. Hunkigarria da». *Bantzaldia* ere hunkigarria egiten zaio, «jaien bukaera delako pena ematen dit. baina une berezia da niretzat ere». Berezi-berezia, berri, Jesusen Bihotza erresidentzian jotzeko una duela aitortu du musikariak, «egoiliarrentzat alaitasuna da, amona han izan zen eta lotura berezia dut leku horrekin. Asko eskertzen dute. Unerik hunkigarria da niretzako, ikusten dituzulako benetako poztasunarekin».

Emakume gehiago bandan

Bandak egiten duen ibilbidean beti dagoela norbait entzuten, dantzatzen edo txalotzen ere aipatu du Barandiaranek, «hori oso pozgarria da, musikazaleak izan edo ez, uneoro dago norbait animatzen, gure musika entzuten». Jaietako bukaera jartzeko ekitaldiak duen be-



Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte
Barne Diseinua

SANTXOENEA 31. ERRETERIA. 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com



Oreretako jaiak!
Etorri eta piztu festa!
taberna

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA



ATERA KALERA,
KALE EGIN GABE!
GORA MADALENAK!





www.oreretaikastola.eus

Sarai De La Torre Fernandez (atzean)
eta Intza Barandiaran Aranalde EMKE
Musika Bandako kideak. I. Zarate

launaldiartekotasuna jarri du nabarmen Barandiaranek, «Zumardian 16 urteko kuadrillak izaten dira, baita 60tik gorako pertsonak ere dantzan, eta oso pozgarria da hori. Gure errepertorioa moldatu dugu, eta oso erantzun ona jaso dugu».

Erreferente bat da musika banda udalerrian, horren gaineko zalantzarik ez da, eta horrekin batera, berritzailea ere apustu ausartak egin dituelako asko-askotan erregistro ezberdin askotara moldatzeko. Pozik bizi dute bi musikariek hori, «motibatzen zaituelako. Lana eskatzen du, baina emaitza ikusten duzunean asebetegarria da, jende gazteagoa ere gerturatzen delako gu entzutera».

Hasi zirenean baino emakume gehiago ari direla gaur egun bandan jotzen ere jarri dute nabarmen, baita hainbat

inertzia ere aldatzen ari direla. «Instrumentu batzuk emakumeenak ziren, eta besteak gizonenak. Flauta eta klarinetea ziren gehiago emakumeentzako, eta metalak gehiago gizonentzat. Oso arraroa zen emakume tronboi bat ikustea, eta gaur egun tronboi jotzaile neska oso gaztea dugu, pozgarria da hori».

Madalena Egunean kontzertua egingen du bandak, baita bi prozesio ere.

Hilaren 22ko kontzertuari begira aurrerapen bat egin dute bi musikariek, «askotariko doinuak entzuteko aukera izango da».

Jaiekin gozatzeraz deitu dituzte herritarrak, eta musika bandarekin festa giroa partekatzen jarrai dezatela, «asko jasotzen dugu herritarregandik, eta horrek gozarazten gaitu. Bide horretan jarrai dezatela, beraz». ■





Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com



- Eguneroko menuak astelehenetik ostiralera.
- Eramateko janaria, gosariak, tostadak etab.
- Etxerako menuak ditugu. Kontsultatu!

www.gutizicatering.com

Bizente Elizegi, behea (Niessen).
Juan de Olazabal, 11, behea.
Tel.: 943 34 44 66 - 621 14 70 35
info@gutizicatering.com


[@gutizi_kateringeramateko](https://www.instagram.com/gutizi_kateringeramateko)

«Lurra aberatsa da; landu egin behar da emango badu»

Arantxa Otegi, Larreaundi baserriko baserritarra izango da aurtengo madalenetako omendua. Izendapenarekin, herriko baserritarren lan isila aintzatsi nahi dute, eta bereziki, emakume baserritarren ekarpen itzela. «Urduri eta pozik» dago Otegi izendapenarekin eta baserria, lurra eta bertatik sortutako produktuen aldeko defentsa irmoa egin du, erreleboa zaila dirudien testuinguruan.

Madalenetako omendua izango zara. Nola hartu duzu herritarren erabakia?
Sorpresa handiarekin, ez nuen espero

ARANTXA OTEGI BASERRITARRA

Madalenei hasiko dituen suziria piztuko du Larreaundi baserriko Arantxa Otegi. Baserria eta baserritarrak goratuko dituela agindu du, aitortzarekin hunkituta. Baserritar gehiago izango ditu ondoan.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

halakorik. Baserritarrak inoiz ez gara halakoetan aitortuak izan, eta arraroa eta dena egin zitzaidan. Urduritasuna ere sentitzen dut; nola moldatuko naiz ni hor hitz egiteko, nire adinarekin? Ez nago eskolatua, 12 urterekin hasi nintzen bakarrik plazara etortzen baserrikoak saltzera, ama haurdun geldituta. Hamalau lagun ginen mahaiaren bueltan. Pentsatu zer premia zegoen. Hamaika senide ginen, ni bigarrena, nire atzetik bederatzi. Izeba, amona eta lehengusu bat ere baserrian ziren.

Hamabi urterekin hasi zinen azokan saltzen bakarrik, eta bukatu?

79 urte egingo ditut irailaren 9an. Joan den urtean gelditu nintzen plazatik, ez naiz postura jaisten saltzera, semeak —Jon Ezeiza— martxa hartu duelako; beraz, 65 urtez aritu naiz.

Eta ibilbide honetan zailena?

Baserrian jaioa naiz, 12 urterekin plazara jaisten hasi nintzen bakarrik, Foru Plazan zen orduan azoka. Gerora Pablo Iglesias kalera aldatu zuten, eta han 30 baserritarretik gora aritzen ginen salmentan beheko pisuan. Handik Niessen merkatalguneko kanpoaldera lekualdatu gintuzten, eta asko jaitsi zen baserritarren kopurua, leku gutxi genuelako, eta orain bizpahiru baino ez dira ari egungo baserritarren espazioan. Bukatzera doa baserria, eta ez du bukatu behar, lurra emandakoa jan behar dugu. Lana ez da txarra, ordu gehiago ematen dituzu, baina gainerakoan ez da lantegi txarra; burdin fabriketan edo soldatzen irensten duten zikinkeria pila ez dago baserrian. Ez da enpresetako kate lana zortzi ordu ja-

Ongi pasa madalenak!

la coquine

f La coquine deco i lacoquinedeco

Foruen plaza 20, Erreterria - 943 90 57 74 - 610 32 54 16

Dekorazioa eta altzariak



albaisu

fisioterapia

Olatz Oliveri Vesga

- Fisioterapia orokorreko min eta lesioak •
- Osteopatia funtzionala •
- Erditzerako prestaketa •
- Zoru pelbikoko tratamenduak eta erditze osteko lanketa •

Santxo enea 11, Erreterria. Tel.: 640 20 10 77



Oiartzo

etorkizunerako bidelagun

IKASTOLA EREDUA

Gora Madalenak Eta biba zuek, gazteak!

www.oiartzoikastola.eus



- Depilazioak (argizaria, laserra eta haria)
- Aurpegi eta gorputzerako tratamenduak
- Masajeak • Solariuma • Makillajea
- Manikura eta pedikura

Irati Estetika Zentroa



Biteri kalea 2, behea.
Erreterria - Orereta
Tel.: 943 25 02 77
Mugikorra: 688 845 501



Arantxa Otegi baserritarra, Jon Ezeiza semearekin; hark hartu du amaren lekukoa. I.Zarate

Mari Ezeiza—, abeltzain bikaina izan zen. Oso pozik bizitu naiz, inoiz ez zait penatu baserrian bizi izana.

Jende askok zoriondu zaitu?

Kalera ezin naiz etorri, batek gelditu, besteak gelditu. Urte hauetan guztietan jende mordoa etorri zait postura eroatera, makina bat jende ezagutzen dut, atera kontuak.

Nola irudikatzen duzu 21ean txupina pizteko unea?

Pozez, horretaraino iritsi naizelako. Nik baserria goratuko dut, niretzako ona izan da beti, lurra asko maite dut eta lurrak emandakoa jan behar dugu; jende pila mantendu dut lurrak emandakoarekin. «Gora baserritarrak, eta gora baserriak» esango dut, ez izateko beldurrik, lana egin behar dela lurrak emango badu. Lurra aberatsa da, baina lan egin behar da. ■

rraian, baserrian tartekatzen zoaz lan ezberdinak. Gustura egin dut baserriko lana, maitasuna diot.

Negutegiekin-eta hasi ginenean diru pila bota behar izan genuen, baina merezi izan zuen. Hasieran ezin lorik hartu ere ibiltzen ginen haizea ateratzeko zuenean, aberiak egiten zituelako. Diru inbertsio handia egin behar zen hasieran, agian hori zailena. Lehenengo bi tunelak jarri genituen, garaiko 300.000 pezeta ziren. Gaur egungo arazo handiena, klima aldaketarekin-eta, zomorroak dira. Horrekin erreta gauden, baratzeetan, mahastietan, denean bihurtu da arazo.

Postuan makina gauza saldua zara.

Egunean 600 letxuga moztzen ibilia naiz, eta denak saldu. Negutegia jarri genuenean ematen zuen guztia ez nuen plazan saltzea, eta Donostiako Bretxara, eta Erreterriako auzoetako dendetara eramaten nituen. Hasi Pon-

tikatik, igo Beraunera, segi Galtzara-bordara, handik Alabergara, eta azkenik Iztietara. Horiek guztiak eginda, Erreterriako postura etortzen nintzen.

Gauerdian oheratu, eta goizero lautan jaikitzen nintzen, dutxatu bolantean ez lokartzeko, kamioia bete barazki eramaten nuen, eta hutsik eraman etxera. Pozik jartzen zen senarra —Joxe

EDURNE Loradenda

Alfonso XI z/g - Niessen merkatalgunea - Tel.: 943 51 70 58

SALSAMENDI
www.gestoriasalsamendi.com
GESTORIA

Madalenak badatoz!

- AHOLKULARITZA
FISKAL ETA LABORALA
- TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA
- AUTONOMOAK - ESKRITURAK

Maria Lezo, 5 . Erreterria. Tel.: 943 52 43 02

OBEA-2
ORTOPEDIA

BIDASOA, 3
MUSIKA PLAZA
TEL.: 943 52 93 01
ERRETERIA-ORERETA

CORAZONISTAS TELLERIALDE

GORA BIHOTZAK!
GORA MADALENAK!

Bittor Idiazabal 1, 20100 Erreterria | 943 51 12 33 | tellerialde.com



Mikel Del Val

A sier Jaraiz Lopez lezoarraren *Begietara begira* kartelak iragarriko ditu aurtengo madalenak. Oso harreman estua du Oreretarekin, eta pozarren da jaien irudia harena delako, madalenak oso festa bereziak baitira bere familian. Aurtengo kartel lehiaketan talentu handia dagoela ikusi du, eta jendea parte hartzera animatu du, artistak eta diseinuak bidean ez geratzeko.

Zer da zuretzat Madalen Jaiak iragartzea?

Oso harreman estua daukat Oreretarekin. Aita hangoa da, eta amona eta izeba ere bertan bizi dira. Oso gertukoa izan dut beti Orereta. Lezo eta Orereta ondoan daudenez, txikitatik joan gara jaietara, eta madalenak beti oso-oso jai bereziak izan dira guretzako. Duela 15 urte hartu nuen parte lehen aldiz madalenetako kartel lehiaketan. Ez dut urtero parte hartu, baina bai noizbehinka. Aurten, sorpresaz, lanean nintzela, Kultura Saitetik deitu ninduten eta esan zidaten txapelketa irabazi nuela. Oso pozik nago. Familiarentzat ere oso berezia izan da. Gertukoak eta horren *potenteak* diren jaiak izanik, nire aletxoa jarri ahal izatea plazera izan da.

Zein da kartelaren esanahia?

Argazkilaria ere banaiz, eta iazko madalenetan, kaletik nindoala, erraldoien kalejira topatu nuen. Udaletxera sartzeaz ziren, azken dantzak egiten. Xanti eta Maialen parez pare ikusi nituen eta argazkia atera nien. Txikitatik erraldoi

GORA MADALENAK! **Madalenetan, eraso sexistarik ez!**

Tejidos **Ami** Oihalak

@tejidosamioihalak

Martin Etxeberria kalea, 4. Erretereria. Tel.: 943 52 55 84

Gozatu Madalenetan!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Astartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTXXO

AUPA MADALENAK!

IZARRA
AKADEMIA
ENGLISH

www.academiaizarra.com
Nafarroa Etorbidea, 59 behea
20.100 Erretereria
Tel. 943 517 340

«Madalenetan nire aletxoak jartzea plazera izan da»

ASIER JARAIZ LOPEZ
KARTELAREN EGILEA

eta buruhandiak gustuko izan ditut, eta argi nuen argazki polit horretatik zerbait egin behar nuela. 2025eko lehiaketarako erabili dut. Enkoadraketan egin, filtroak sartu, kolorea jarri eta modu oso natural eta azkarrean atera zitzaidan diseinua. Oso irudi polita iruditzen zait Xanti eta Maialen parez pare egotea, begietara begira.

Hortaz, iaz ateratako argazki batetik sortu duzu kartela.

Bai, hori da. Izena ere ez da buruhauste handia izan, *Begietara begira* jarri baitiot. Begietara begiratzeak elkartasuna, maitasuna, gertutasuna edota konplizitatea bezalako kontzeptuak iradokitzen dizkit, eta kontzeptu horiekin lotu nahi izan dut kartela. Jaietan jendeak poztasuna du eta momentu politak bizitzen dira lagunekin, familiarekin edota herritarrekin.

Horrez gain, 2011n Vendetta taldeak *Begietara begira* izeneko abestia argitaratu zuen, eta euskararen aldarrikapenez eta babesaz hitz egiten du. Abesti horri ere keinu egin nahi izan

diot. Euskal Herrian bizi gara eta gure jaiak euskaldunak izatea eta euskaraz bizitzea ere garrantzitsua da.

Nondik datorkizu kartelak eta mota horretako lanak sortzeko zaletasuna?

Txikitatik asko marraztu dut eta eskulan asko egin ditut. Diskoen portaden oso *frikia* ere banaiz. Beti gustatu izan zait irudia zentzu guztietan. Lagunek proiektu bat baldin badute laguntza eskatzen didate portada edo poster bat diseinatzeko. Betidanik gustatu izan

zait sortzea, eta oso saltseroa naizenez, madalenetako lehiaketan parte hartzea erabaki nuen duela 15 urte. 15 urte geroago madalenen portada nirea izango da.

Madalenetakoaren ondoren, baduzu beste erronkarik jomugan?

Gauza asko uztartzen ditut, eta pixkanaka joaten naiz. Etorkizunera begira gauzak suertatuko dira, baina oraingoz ez daukat planifikatuta zer egingo dudan. Hurrengo urtean seguruenik berriro hartuko dut parte madalenetako lehiaketan. Gainontzeko lanak ikusita, oso onak izan dira eta sekulako talentua dago. Eskerrak eman nahi dizkiet parte hartzaile guztiei, duten talentuagatik eta beren aletxoak jartzeagatik. Jendea ere parte hartzera animatuko nuke, beldurrik gabe. Seguruenik ezkutuan artista pila daude, eta etorkizunean diseinu pila topatuko ditugu. Askok bidean geratzen dira, eta pena da, baina ikusten dut sekulako potentziala dagoela, eta gazteen artean, gaur egun, are gehiago. ■

TATTOO
PIERCING
NAIZ

Tatuajeak laserrarekin kentzen ditugu!
ongi pasa madalenak!
665 72 24 65
Madalen kalea, 3. Orereta

OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK


Blazmo
merceria creativa

GOZATU MADALENAK!
Nafarroa hiribidea, 28
ERRETERIA-ORERETA
tel.: 843 67 17 34
@blazmo_ wool


KALIMA
arropa eta osagarriak
@kalima_erreterria
Biteri, 25. Erreterria-Orereta. Tel.: 943510372

Ondo pasa


rosmi

madalenak!

**JAIETARAKO JANTZIAK:
ZAPIAK, TXAPELAK, GERRIKOAK...**

Foru plaza, 21 . 943 511 887 . Erreterria

Rock and rolla madalenetara itzuliko da

Tabu Demons Musika Elkartea duela hiru urte sortutako irabazi asmorik gabeko elkartea da. Urtean zehar hainbat kontzertu egiten dituzte, eta Madalenrock da elkartearen ekitaldi nagusia. Tabu sei kidek osatutako musika elkartea da, eta horietako hiru dira Javi Buta, Alex Infante eta Josean Arranz.

Aurtengoa hirugarren Madalenrock jaialdia izango da. Antolatzaileen helburua izan da 1980ko eta 90eko hamarkadetan herriak izan zuen rock and roll

Hilaren 24an, Tabu Demons Musika Elkartek antolatzen duen Madalenrock jaialdiaren hirugarren ekitaldia jasoko du Xabier Olaskoaga plazak, 21:00etatik aurrera eta doan.

MIKEL DEL VAL GARCIA

esentzia berreskuratzea, musika mota horren inguruan hutsune nabarmen bat baitzegoen: «Madalenrock jaiek zuten hutsune bat betetzeko sortu da. Azkenaldian musika estiloak eta festen formatua asko aldatu dira, eta gure adineko jendeak ikusten zuen musika mota hori falta zela madalenetan».

Aurtengo Madalenrock hilaren 24an izango da, Xabier Olaskoaga plazan, 21:00etatik aurrera eta doan. Orotara, hiru talde igoko dira Niessengo oholtzara: Tim Ripper Owens talde amerikarra, Urtz pasaitarra eta Krait oreretarra. Sustatzaileen helburua da nazioarteko edo estatu mailako talde esanguratsu bat ekartzea, euskarazko talde bati txoko bat eskaintzea eta herriko talde bat taularatzea.

Aurtengo kartel burua AEBetatik etorritako Tim Ripper Owens da. «Oso ezaguna da metal munduan», esan dute. Euskaraz aritzen den taldea Urtz da. Trintxerpetarrak duela hilabete batzuk itzuli ziren oholtzetara. Aurtun 30 urte bete dira taldearen lehen bi diskoen sorreraz, eta abesti horiek entzun ahal izango dira madalenetan. «Oso kontzertu berezia izango da», aurreratu dute. Azkenik, etxeko taldea Krait da. Oreretarrek beren disko berria aurkeztuko dute Madalenrocken. «Gure helburuetako bat da herriko taldeak sustatzea», adierazi dute antolatzaileek.

Hilaren 24koa jaialdiaren hirugarrena izango da. Lehen bi Madalenrocken balorazioa «ona» dela baietsi dute sustatzaileek. Lehen ekitaldia «xumea» izan zela aitortu dute, eta ordutik «koska bat gora» egin eta «hazten» ari dira.



IKUSI MAKUSI

Zure opari denda

Jostailu hezitzaileak

Punta-puntako markak

Kalitatezko jostailuak

Tel.: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Erretera - Orereta

www.oarsoak.com

Beerlagun



UGALDETZO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN

TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com



Gora Madalenak!



OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

labureus/KBLoarso

943 25 91 79

electricidadoarso@gmail.com

kblelektrizitatea.eus/eus/

Eman argia zure bizitzari





OTORDU

PLATER PRESTATUAK

Tel.: 943 52 97 26

Andre Mari kalea, 17.

Erretera-Orereta

**Javi Buta, Josean Arranz,
Alex Infante eta Txarli Maestre
jaialdiaren antolatzaileak. HITZA**

Iaz Alemaniako talde bat ekarri zuten Errenteria-Oreterara, eta aurten AE-Betatik iritsiko da Tim Ripper Owens. Horrez gain, osatu duen ibilbide laburrean, Madalenrockek publikoaren onespina izan duen festibal bat dela goratu dute sustatzaileek, eta «gogotsu» daude jada aurtengoaz gozatzeko.

Zerura begira

Antolatzaileak, halabeharrez, zerura eta eguraldi iragarpenetara begira daukela aitortu dute. Lehen bi ekitaldietan euria egin zuen, eta iaz jaialdia bertan behera utzear izan ziren, sekulako euri zaparrada bota baitzuen. Aurten esperantza dute ateri egiteko, eta jaialdia behar den bezala disfrutatzeko. Sustatzaileen aurreikuspena da Xabier Olaskoaga plaza bete eta txiki uztea: «Kartelak merezi du, eta luxu bat da nazioarteko talde bat gurekin izatea».

Aurreko ekitaldietan egin bezala, antolatzaileek elikagaiak jasotzeko postu bat jarriko dute plazan. Tabu elkarteak martxan jarri zutenean, kideek argi zuten ez zutela bertatik aberastu nahi, eta gizarteari zerbait eman nahi ziotela, ahal zuten moduan lagunduz. Lehen bi ekitaldietan Donostiako jantoki sozialetara bideratu zituzten jasotako elikagaiak, eta, aurten, Aita Mari elkarteak igoziko diote bildutakoa.

Urtetik urtera berritasunak sartzen ahalagintzen direla aitortu dute susta-



tzaileek. Jaialdia iragartzeko karteletan, herriko txoko esanguratsu bat txertatzen dute. Aurten, esaterako, Mikelazulo ageri da kartelean; iaz, aldiz, elizako dorrea irudikatu zuten. Xanti eta Maialen erraldoiak madalenen bi ikono bilakatu dira, eta haiek ere presentzia dute kartelean. Heavy metal talde esangu-

ratsuei errekonozimendu bat egiteko asmoarekin, Xanti Iron Maiden bezala irudikatu dute, eta Maialen Halloween taldea bilakatu da. Horrez gain, herriko musikaren alde lanean aritu diren pertsonen ibilbideak errekonozitu nahi dituzte, eta aurten hasiko dira omenalditxo horiek egiten. ■

KABALA
 etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
 943 53 57 51 / 605 76 52 14
 Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

GORA MADALENAK!

Gora madalenak!
PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK
 Gamon Zumardia, 12 Errenteria • 943 55 86 25

Gora Madalenak!
 Herriko Plaza 7
 Tel: 943 52 46 87

MAITEXA
TABAKOAK-OPARIAK
Gora madalenak!

Bizente Elizegi, 3 . Errenteria . 943 51 21 10

Ayerdi Motor

**SALMENTA,
MEKANIKA ETA
KARROZERIA**



ESPEZIALISTAK



www.ayerdimotor.com



INSTALAZIOAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO

Tel.: 943344525 - 602 22 76 84 - ayerdimotor@ayerdimotor.com



Nagore Cabada

HORTZ KLINIKA

*Gozatu madalenetan!
Egin irribarre!*

Santa Klara plaza, 2. 20100 Errenteria.
Tel.: 943 017 876. kllinikanc@gmail.com



grupo asegi



JAKIN S.L

**AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO GESTIOAK**

Morrongilleta 11-13. Errenteria - Orereta. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32

CIFP DON BOSCO LHII



• DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

Don Bosco alde z/g

• BERAUNGO ERAIKINA

Beraun kalea 1,
20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**





EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Liher Saiz

LEHEN KOLPEA, TOKI ASKOTAN

HILAREN 21EAN. 19:00etan izango da madalenen txupinazoa Herriko Plazan. Aurretik, Koldo Mitxelena plazan Mila Koloretako Txupinazoa izango da, 18:00etan; Gernika plazan Holí Festa 19:00etan; eta Zumardian, pantaila erraldoia jarriko dute festen hasiera ikusteko.



Ikerne Zarate

KUADRILLENA IZANGO DA EGUNA

HILAREN 23AN. Kuadrillen Eguna da madalenetako hirugarrena. Aurretik egiten zen bazkaria baztertu, eta aurten ere 17:00etan hasiko den poteoarekin abiatuko dituzte herriko kuadrillek kale-ekintzak. DJ Bullekin batera zeharkatuko dituzte herriko kaleak, eta 19:30ean, Herriko Plazan, ezinbesteko hitzordua: Xanti eta Maialen erraldoiekin talde argazkia.



Ikerne Zarate

IKUSKIZUNA OIARTZUN IBAIAN

HILAREN 24AN. Huts egin ezinezko ikuskizuna bihurtu da Kukañarena, Oian-gozHau mugimenduaren izarretakoa izaten da madalenetan, aldi berean Oiartzun ibaia festen erdigunean jartzen duena. Ahalegin, erorialdi eta kolpetxo artean lehiatuko dira partaideak ikurrinaren bila; ikusleek aurten ere gozatzeko eta irribarre zabalak egiteko aukera izango dute.

www.iparaseguroak.com

IPAR

aseguroak

Nafarroa etorbidea, 75 - behea
Errearteria. Tel.: 943 34 11 27

BEGI
optika

GORA
MADALENAK!

OREKA
ENTZUMEN ZENTROA

biteri kalea, 34 · orereta-errearteria · tel 943 526 753

1986

ATERPE

HIGIEZIN
AGENTZIA

Gozatu
madalenak!

- Alokairuak eta Salmentak
- Bermea + Segurtasuna
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

BENETAN
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUAK

AFINSE
SERVIDO INTEGRAL DE ADMINISTRACION
DE FINCAS

**ONGI PASA
MADALENETAN!**

ASEGURUAK
Tel.: 943 34 49 40
benetan@benetan.net

**Biteri, 17, behea.
ERRETERIA**
(sarrera Morrongilleta kaletik)

FINKA-ADMINISTRAZIOA
Tel.: 943 34 49 42 / afinse@afinse.com

20

MADALEN AURREKO XVIII.
TXISTULARI KONTZERTUA
+ ALAITZ ETA MAIDER

20:00
ZUMARDIA

Madalenak Erreteria 2025

Musika festa

UZTAILAK 19 -25 DE JULIO

herribizia.erreteria.eus/madalenak



21

PURO RELAJO

01:00
ZUMARDIA

MALA RUINA

01:30
PANIER GUNEA

AZK eta
KOMANDO SESERA

01:30
MERKATU ZAHAR GUNEA

22

SUKENA

23:15
ERRIOLA GUNEA

NIÑA COYOTE ETA
CHICO TORNADO

01:00
ZUMARDIA

23

OIHAN VEGA

00:00
ZUMARDIA



24

OLGETAN ERROMERIA

20:00
GERNIKA PLAZA

RIPPER OWENS

21:00
XABIER OLASKOAGA

TXILTXOKO ETA
PEYE ROSE

00:00
LINO GUNEA

J. MARTINA

00:30
ZUMARDIA



25

PETTI

19:00
XABIER OLASKOAGA PLAZA



ERRETERIA
UDALA



madalenak

KULTURA
kreaktiboa